

NARRATIBA

Mozorrorik gabe

HERIOTZARAKO JANTZITA

Donna Leon. Itzultzailea: Jesus Mari Lasas
Erein, 2009
436 orrialde. 23 euro

Iban BALERDI

Donna Leon estatubatuarra izan arren, aspalditxoan Italian bizi da, Venezian, eta bertan kokatzen ditu bere liburu gehienetako gertaerak. Honako hau, Guido Brunetti komisarioa pertsonaia nagusi duen hirugarren alea da, jatorrizko bertsioan 1994an atera zena. Harrezkero, beste hainbat argitaratu ditu, azkenariak bertan, eta dagoeneko polizia eleberriko idazle ezagun bihurtu da.

Venezia inguruko Mestren hilotz bat agertu da, trabesti itxura eta aurpegia erabat desitxuratua duena. Egunez langile mordoa biltzen duen industrialdea, iluntzean prostituzio gune bilakatzen da, eta badirudi gauak utzitako biktima berri hau ere inguru honi lotzen zaiola. Hemendik abiatuta eta nobelak aurrera egin ahala, guztia hain sinplea ezin dela izan ikusiko da, Eliza, Finantzak eta Gobernua zuzenean ala zeharka ukitzen dituen argumentuan.

Gertaerak eta zantzuak pixkanaka joango dira agertzen, haserako harietira, ikerketa lanari jarraituz, pausuz pausuz, ustekabe arraro edo tranparik gabe. Alde honetatik, beraz, idazleak zuzen jotzen du, polizia lana nola burutzen den azalduz eta amaiera honda zezakeen sorpresarik gabe.



Protagonista nagusia Brunetti komisarioa bada ere, istorio guztia jazotzen den tokiak ere aparteko garrantzia du. Venezia hiri aski ezaguna izanik bere inauteri, zinema jaialdi, gondola edota biltzen dituen turista andanarengatik, guztiok dugu nolabaiteko irudia buruan, bisitariaren begiekin ikusten duena. Donna Leonek, aldiz, bertan bizi eta lan egiten duen jendearen begietatik erakusten digu hiria. Zubi, kale eta elizak aipatzen ditu, baino baita hiriko dialektoa, kutsadura, etxebizitzaren prezioak eta beste hainbat kontutxo ere. Horrez gain, eta modu berezian aipatzearen, uda garaiko etengabeko bero eta hezeta-

sunak, bertakoak kanpora bultzatzen dituenak, kanpokoak bertaratzen diren bertartean. Bero sargoriak markatu egiten du nobelaren erritmoa; lasaitasuna, patxada ematen dizkiola esango nuke.

Egungo Italiako gizarte (beste askoren ispilu) ustelduaren trazak ere modu askotan agertzen dira, etika ezaren, hipokrisiaren, gorrotoaren edota diruzalakeria itsuaren eskutik. Oroz gain finantza mundua nagusitzen den Mendebaldeko kultura, esperantzarako leku murrizta den honetan, Brunettiren modukoek bigarren mailako paperak betetzen segituko dute. Horren jakitun izanik, komisarioak ez du ur handitako borrokatan sartzeko asmorik eta berari dagoeneko, arlo pertsonal zein profesionalean, ondo egitearekin nahikoa du. Superheroietatik urrun, pertsonaia atsegina iritzi diot.

Laburbilduz, gustura irakurtzen den liburua da, gai eta ertz asko ukitzen dituen eta ongi landutako pertsonaia aurkezten dizkiguna. Erein argialetxeak hasi berri duen Uzta Gorria sailak, beste hizkuntza batzutan salmenta handiak lortutako liburuak euskaraz irakurtzeko aukera berri bat eskaintzen digu. Gainera beste zenbaiten aldean, formatua ere gustatu zait, batez ere, bistari gehiegizko lanik eskatzen ez dion hizki tamaina erabili dutelako.

Irakurleak badu Venezia etxetik bertatik ezagutzeko modua, baina aurtengo udan bisitatzeko asmorik izanez gero, ez dut uste hau irakurrita gogo handirik geldituko zaionik.



Mikel IBARGUREN

Kartzelako gaia

Asko dira munduan zehar kartzelaren barrunbean zein urrutimean ondu diren literatur lanak. Espazioa eta denbora elkar hartuta doazen konstanteak dira sarri, askatasun minarekin batera. Sormenak, ordea, espazio murriztu horren hesiak gainditzen ditu. Eta hitz bihurturiko gezi horiek guregan iristen dira. Galdetu bestela Lewisburg-eko espetxean dagoen Leonard Peltier indiarrari. Bereak ez dira poemak, esanahi-geziak baizik. Eguzki dantza da bere bizitza. Bobby Sands-en hitzak ere antzera heldu zitzaizkigun: «Gure mendekua gure umeen irria izango da». Edota Oscar Wilderen «Reading kartzelako balada». Gauza bera Nazim Hikmet idazle turkiarrari dagokionez. Gauean elurra ari du beti bere poemategian. «Nosotras, presas politicas» liburuak Argentinako diktaduraren oihartzuna dakar, Villa Devoto kartzelan idatzitakoak ekarriz. «Idatzi, bizirauteko» diote. Tahar Ben Jelloun idazleak ezkutuan idatzi behar izan zuen bere lehen poema («L'aube des dalles») armada-ko diziplina gunean zegoela. Jon Etxeandiak ere ez zuen erraztasun handirik izango «Gosea lagun, laguna» liburu idazteko orduan. «Kartzela ez baita joko literario bat». Tortura zuria deitzen den horri buruz ere mintzo zitzaigun Filipe Bidart bere garaian «Bakartasunaz bi hitz» eginez: «Hemen naiz, zelda batean bakarrik, ene urratsak kondatzen...». Eta abar luzea. Zenbat esanahi-hitz bihotzetik bihotzera. Zenbat urrats errotarran, jiraka. Hitzaren bidez, sormenak bultzatuta, mugak (ikusezinak barne) gainditzeko ahaleginean. Oztopoen gainetik presoaren, jazarriaren barnean dagoen gizakia ari zaigu hoska, ahotza biluztuz. Handik edo hemendik aldarrika. Ataramiñetik «ataramiñe'09» sortuz. Gatibu bai, baina erabat preso ez daudela erakutsiz. Zigorren gainetik, eguzki dantzan edo urratsak kondatuz, sormenak (beharrik) beti aurkitzen baitu zirrikitia ihes egin dezan.

KALERATU BERRIAK



GUERRA, MISERIAS Y TRACIONES EN EL DON

EL DON APACIBLE II
Mijail Shólojov
Tusquets, 2002
560 páginas. 25 euros


Segunda entrega de la considerada por muchos como la gran novela rusa del siglo XX, comparada con «Guerra y paz». En este segundo volumen, nos encontramos con Gregori Mélejov recuperado ya de sus heridas en el frente de la Gran Guerra y de vuelta a casa. Pero no han acabado sus pesares, pues llega la guerra civil.



HISTORIA DE UNA TOMA DE CONCIENCIA

FEBRERO
Eva Forest
Hiru, 2010
128 páginas. 13 euros

Basado en los acontecimientos de febrero 1956 en las calles de Madrid, cuando un joven falangista fue herido de bala en un choque entre una manifestación de estudiantes y un grupo de falangistas. Al parecer, el tiro salió de estos últimos, pero la Falange amenazó a varias personas, Eva Forest y Alfonso Sastre entre ellas.



TRAYECTORIA ILUSTRADA

THE BEATLES: SU HISTORIA
Stephen Nappé
Autor-editor, 2009
258 páginas. 27,96 euros

Biografía del mítico grupo, con páginas de texto y de novela gráfica. Relata la historia del grupo en 25 capítulos, y cada uno está ilustrado por un artista diferente adaptando el dibujo a la estética de cada periodo. Tiene dos epílogos: de Santi Carulla, de Los Mustang; y de Josep M. Francino, experto en los Beatles.



EGUNEROKO GAUZAK

ESAN GABE DOAZ
Karlos Linazasoro
Utrisque Vasconiae, 2010
49 orrialde. 16 euro

Idazle tolosarrak 400 aforismo edo gogoeta labur bildu ditu bere hirugarren aforismo liburu honetan. Obran paradoxa da nagusi. «Egunero ikusten gauden inguruan hausnarketa egin eta buelta eman diot», adierazi du egileak. Jorratu dituen gaien artean, heriotza, denboraren iragaitea, inkomunikazioa...